

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

299n. zenbakia  
urrilla 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **ZIORTZA PANORAMA**

### **BIZKAI'KO LEKAI DATZE BAKARRA**

- ABATA'REN ETXEA
- ELEIZEA
- IBILTEGIA (KLAUSTRO)
- OSTATUA
- ILLERRIA
- ATARIA...

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin  
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.  
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.  
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul  
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki  
          Solozabal'dar Paulin  
          Malaxetxebarria'tar Jon  
          Ormaetxe'tar Emilio

## ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ

### GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza. (Ez dago).
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.  
Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira.

**Ordaiña:** Bakoitza sei euro.

Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

**Eskatu:** Martin Olazar

XXIII Jon Z. enparantza 2.

48100 Mungia - Bizkaia

Tel: 94 674 01 23

## ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egilea: "Euskerazaleak"  
Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele  
Idazkola: "Euskerazaleak"  
Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)  
Idazleak: Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa)  
          Aldalur'tar Justiñe  
          Egaña'tar Gotzon  
          Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)  
          Martiaru'tar Iñaki  
          Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

GURE WEB ORRIA: [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

## BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

# LANDARAK

Bizidun guztien antzera, landarak be jaio, arnasea artu eta bota, eta ugaritu egiten dira. Kizkin edo zelulak daukez.

Baña landarak ez dira tokiz aldatzen, lurretik artzen dabe euren janariaren zati bat.

Landareak bakarrik atera leike, berarentzat, gizonentzat eta bizidun guztientzat bear-bearrezkoa dan janaria. Orretarako da orriak dauken gai orlegia, klorofila deritxona.

Landarak ez gaitue bear bizi izateko, baiña gu ezin geintek bez bizi landarak bagerik.

Landarak egunez arnasea artzen dabenean oksijenoa botaten dabe guk arnasea artu dagigun, baiña gabaz ez dabe oksijenoa botaten, karbonoa baiño, orregaitik gabaz ez da euki bear landararik gela itxian, kalte egiten dabe-ta.

Landarak eldu arte, gizelan baten lurretik 471.000 litro ur artzen dauz. Eta 1.200.000 litro ur botaten dauz urtean lurrin lez.

Lurretik artzen dau bear dauan janariaren millatik bat eta beste gauza asko aixetik, girotik eta eguneko argitik...

Sustraiak dira landarearen zati bat. Oneik landarea janaritu eta zutunik dauke. Gari-landara batek, elduta dagoanean, 67.000 sustrai-txu daukaz eta indar aundia dauka

lurra zulatzeko. Estaterako torreko ertz baten jaio dan zugatzak torrea botateko besteko indarra dauka azten doanean. Eta atxak be apurtu egiten dauz sustraiak. Baiña ugarriak eta ikusgarriak dira lur-gaiñeko enborrak. Landara batzuk, esaterako patateak, lurpean dauka enborra eta an emoten dau frutua. Ez da sustrai, enborra baiño patatea emoten dauana, lurpean egon arren.

Zelan jakin geinke zugatz batek zenbat urte daukazan?

Enborra ebagi eta ikusi zenbat ereztun daukazan. Ainbeste dira zugatz aren urteak. Baiña zugatza bota barik be jakiten da zenbat urte dauzan. Ba dago "Colorado"n zugatz bat 1.344 urtekoa dana.

\*\*\*

Aztertu daiguzan orriak.

Antxiñako Grezia'n, etorkizunaren barria emoteko aztiak orrietan idazten ebezan euren erantzunak. Arabiarak Koran'en zatiak orrietan idazten dabez.

Antxiñako Grezia ta Erromatarak gizonen garaipenak agertzeko, orio-ondoaren eta ereñotzaren orriak artzen ebezan koroiak egiteko. Ortik etorria da Batxiller edo bacca-laureus izena, ereñotzagaz

egindako koroia ezartzen eutselako.

Baiña orriak ori baiño geiago diñoskue: Orrien azpian arnasea obeto artzen dogu, orretan lorak baiño obeak doguz. Zergaitik? Orriak, bedarrenak naiz zugatzek, argibilla dagozelako eta argi-gaz gutzat oksijenoa sortzen dabe, guk arnasea artzeko eta orretarako da euren klorofila-lana.

Arrigarriak dira basa-mortuko bide-ertzetan dagozan landara batzuk. Euren barruan ura gordeten dabe eta egunero amar litro ur emon leikez astebete baiño geigoan. "Bidaztien zugatza" dero-txoe olakoari Madagaskar'en. Baiña kontuz urgeldiaren ondoan dagoanean, orduan ura ez da edatekoa.

Orriak itxura askotakoak izan daitekez: bakarrak, alkartuak, arantzadunak, elipse-antzekoak, aizto-antzekoak, luzeak, biotz-antzekoak... guztiak politikak... eta guztiok jaten doguz orriak gordiñik naiz egosita.

**MARGO EDERDUN  
ENTZIKLOPEDIA'tik  
OLAZAR'tar Martin'ek  
moldatua**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

# ERBESTETIKO BIDEZ BIDE-IBILTZAILLE ZARRAK EUZKADI ZEAR (JARRAIPENA)

---

XV eta XVI MENDEETAKO OLERTIA.– Gure olerkari kartujiarraren aapaldi oiek XV mendekoak ditugu. Ba, XV mendean, Itali zan Eurpa'n kultur ororen Izar dizdiratsua, beste Errialdeei argi zeramakiena. An, Itali'n, bizkor bait zetorren Dante'z gero Birjaiotza, ots, Errenazimentua. Itali'ra begira idazten zuten erromantzeetako idazle guztiek, olerkariak bereiziki, Itali'tiko olerkien itxura txukunaz jabetu nairik. Ondo esan dut: ¡txukuntasuna! Olerki aien itxura atsegiñ ura bait zuten olerkari europar aiek egarri, olerki beraien mamia baiño geiago.

Ez da arritzeko gauza; Itali'ko olerkari beraietntzat ere, naiz mamiaz arduratu, batez ere itxura bait zan arretarik aundiena merezi zuana, ots, kualitaterik arretagarriena.

Ez zebiltzan oker, txukuntasun ortan bait dagoz oler-tiaren nortasuna ta zertasuna. Ortan dira ezberdiñak itz-laua, ots, “prosa”, eta itz-neurtua edo bertsoa eta bertsoz mintzatzen dan olertia.

– ITZLAUAK, naiz txukuntasunaz aztu gabe, baldarkeria ez zaio ba iñori atsegiña gertatzen, mamiaren egokitasunari, egiazkotasunari eta zintzotasunari ematen dio arretarik aundiena.

– OLERTIAK, alderantziz, olerkigintza txolintasun utsa biurtu ez dadin, mamiari zor zaionik aztutzeke, izketaren politasunari emango dio bere ardurarik nagusia.

**EUSKALDUNAK ¿BESTEAK EZ BEZALAKOAK?**  
– Ortan ere ezberdiña izan bear du gure Euskalerrriak. Emen gure irakurleentzat, edo entzuleentzat, entzule geiago bait da euskalduna irakurle baiño– mamiak aiñako garrantzia du azalak itzalauzko idazkietan, eta azalak aiñekoa mamiak, bertsoa irakurtzen edo entzuten ari danean.

Eman egiozu itzlauz idatzitako zerbait. Naiz idazki orren mamia arats garrantzitsua izan ez du luzaro iraungo irakurle euskaldunaren eskuetan, azala ere belarriarentzat atsegiña ez ba' du.

Orregaitik egon oi ziran ain pozik gure errietako gizon-makumeek sermoilari yayoei entzuten. Izan ditu Euskalerrriak orrelako sermoilari bikaiñak. Nere gaztaroan Tolosa'ko parrokoa zan On Braulio Arozena dator-kit gogora, eta leenago oraindik, baita, Naparro'an Beteleu'ko lekaimen kapillau izan zana ere, erriak,

sendiaren izengoitiaz “española” esan oi ziona.

Berdin jardungo da euskalduna olertiaren aurrean. Bertso bakoitzaren azala dotorea izatea eskatuko dio bertsolariari, dotore ezeze txukuna, atsegiña, eta beste-rik gabe bere doiñu utsez ia-ia musika dana.

Baiñan era berean bertsolariak abesten dizkion bertsoak ez ba'dira mamiz egoki pentsatuak, yayoki eratuak eta modu garbi ulerterrezean agertuak, bizkarra emanez laister utziko du bakarrik alako bertsolari baldar ura.

Mamiaren mota utsak, ez zuan euskaldunarentzat garrantzi aundirik. Berdin zitzaizkiion erlijiozkoak (bertsolaririk aundienek ipiñi oi zituzten bertsoz mixiolarien sermoiak), politikazkoak (karlisten bi gudateetakoak adibidez) par eragilleak (“itxasoan asi dira”, “bein batean Loyola'n”), maitasunezkoak (Bilintx'en bertso danak) izkirimirizkoak (“asto baten gañean”)...

Edozein gai izan zitekean bertso batzuen mami ego-kia, Xenepelar'ek Iparragirre'ri bertso-borrokarako jaurti zion deia adibidez, baiñan gai ori bertsolariak dotore landurik agertzen ba'zuan.

\*\*\*

**GAURKO BERTSOLARITZA.**– Itzuli gaitezen gure Yon Kartujiarrarengana. So egiezu bere bi aapaldiei: Dotore jarriak dituzte bere puntu guztiak: “sierra-salva-tierra; afan-adrian; horadado-lado; abertura-concavadura”.

Irakurri itzazu berriro, eta ona zer ikusiko duzun: azala txukuna bezain baldarra dutela mamia. Ez zan ori gure kartujar adiskidearentzat ajolagarri, bere bi aalpa-di aiek beren axaleko txukuntasunari eskerrak egoki bait zeuden, besterik gabe abestuak izateko.

Belarriarentzat atsegiña gertatuko zan ba beraien goxotasun musikoia, abeslari batek ¡goxoki! entzutera ematerakoan. Gaiñerako gutzia goxotasun orren pean izkutaturik geldituko zan (1).

---

(1) Guk ez baiña iparretarrek bai, itz bereizia bezala erabilli oi dute – ez gaiñera zakarki– “pe” atzikia. Ezaguna da erri-abesti polit bat: “Lurrarenm pean sartu nindeke maitea zure aalgez”

Orrelako zerbait gertatzen zaigu gaurko bertsolari-tzarekin. Ta orregaitik ez zaie gure belarri zarrei, gure gaztaroko bertsolaritza oiturik dauden gure belarri gai-xoei, atsegiña gertatzen. Berealaxe oartzen dira gaurko bertsolariak ez dirala atzoko aiek bezalakoak.

¿Ori zergaitik? Atzoko aiek egiazko bertsolariak ziran bezala, gaurkoak bertsolariak ez diralakao. Zerbait izatekotan, geienek beintzat, soilki bertso-paperak gertutzeko balio dezakete.

\*

**BERTSOLARI ZAR AIEN KULTURA.**– Atzoko aietatik asko, eta asko oien artean onenetakoak, ez ziran eskolatuak, ez zekiten idazten ere, analfabeto gorriak ziran. Altagutzit bertoslariak, bai, ori baziran, eta onak gaiñera, baiñan bertso-gintzarako yayotasun ori jaiotzetik zekartelako.

Yayotasun ori **izadiak** berak emana zuten. Ondorioz aiek bai, egiazko bertsolariak ziran.

**BERTSOLARI GAZTEEN KULTURA.**– Gaurkoetatik, geienak beintzat, **kultura idatziko** gizakumeak dira. Beren yayotasun urria ez da, izadiaren doaia lez, jaiotzetik dakartena, bertsolari-eskoletan ikasia baizik. Eskolek ordea ez dezaikete gizakumearen gogamenari indar geiagorik eman; erakutsi bakarrik egin dezakete: teknika bat erakutsi.

Erdiaroak gero latíñez esana da, eta ondo esana, bai orixe!, guk euskeraz “Izadiak eman ez dizuanik eta dizu Salamanka’k emango” esango genukean latíñezko gogoeta zorrotz au: “quod natura non dat Salmantica non praestat” (2).

Guzti ori orrela dalarik, gaurko bertsolariak, eskolan ikasitako teknikari jarraituz, puntuak billatzeaz arduratzen dira bereiziki; eta puntu egokiak aurkitze ori lortzearen, biurritu egiten dute mamiaren euskera. Ez dira bertsolariak; bertso-papertzailleak dira.

Ta, nola ez? euskera zakarra gertatzen da beren bertsoetako euskera. Baiñan zakartasun orrek baditu beste iturri batzuk ere: Gaurko bertsolarien eta orduango aien kulturazko ezberdintasunetik sortuak.

\*

**AGOZ-AGOZKO KULTURA, ¿EGIAZKO KULTURA?** Leengo bertsolari aien artean, batzuk batere eskolarik gabekoak ziran, eta gaiñerakoak, ia danak, oso-oso eskola motzekoak, doi-doi idazten eta irakurtzen zekitenak.

Orrek, ordea, ez du esan nai kulturik gabekoak zira-nik. Bazuten kultura, aundia gaiñera, baiñan aien kultura **agoz-agozko** kultura zan, ots, “cultura oral”, gazteleraz.

Gaurko bertsolariak, alderantziz, dan-danak kultura idatziaz ederki jantziak dira. Bere izena paper batean idazten ez dakian gizakumea ezertarako balio ez duan pertsona dala uste duanarantzat, leengo aien aldean millaka aldiz kultura geiagokoak.

Baiña kultura idatziak bere bentajak baditun bezala, baditu bereak agoz-agozkoak ere. Agoz-agozko kultura duten gizon-emakumeak beren kulturaren egilleak izan oi dira. Gizartean, gure bertsolari aiek gizarte euskaldunean, ikusi ta entzun dutena buruan gordez eta urtez-urte orrela gorde duten ori, bizi diran errialdeko kulturaren argiz landuz, osotu duten araudi-ta-gogoe-ta-ta-sentipen-sorta aberatsari esan oi zaio agoz-agozko kultura.

Agoz-agozko kulturadunak irakurtzen ez daki, edo pittin bat baldin badaki, ez irakurren egoteko aiña. Ondorioz, buruan daraman guzia, bere inguruko erri-kulturatik jaso du. Dakian guzia erriagandik bere lanez ikasia, gordea, apaindua ta ugaritua du.

Orregaitik naitanaiez eta bete-bete da Euskal-Kultura gure agoz-agozko kultura. Euskalerriaren eta Euskalerriko kultura. Millaka urteen epean Euskalerrian euskeraz itzegiten eta euskeraz pentsatzen zuten euskaldunen lan ederraren zitua!

Oridalata dute orrelako euskalduntasun-usai gozoa gure bertsolari aien bertsoek. Gogora datorkit nola egoten giñan oso gazte giñala, 10 eta 11 urtetik gorako mutikoak, azoka egunetan zoraturik gure bertsolari aundi aiei entzuten.

“EL BATUA”REN ONDORIO GAITZAK.– Gaurko bertsolariak euskaldutasun goxo ori falta zaie, erderaz pentsatuak eta gero esanak izan aurretik euskerara itzuliak izan dirala ematen dute. Euskerazko jantzi baten barruan erdeltasuna ageri zaie.

Badakit bertsolari oiek euskerazko bertso-eskolan ikasiak dirala, baiñan tamalez, ikastola ortan, eta beste ikastola guztietan!, “el batua”z eziak izan dira. “El batua” ordea ez da EUSKERA. Baztar guztietatik ageri zaio POLITIKA TXORO BATEN ONDORIO DUAN sorkuntza presakoi urduriaren erdeltasuna. Orregaitik esan zuten bere sortzaille danek bein baiño geiagotan “el batua”k ez duala literaturarako, bereiziki olertirako eta bertsolaritzarako balio.

Birresan dezadan ezezkotasun ori, irakule guztien adimena-eta-oroimena-baitan ondo erroturik gelditu dedin:

ORRELAKO GOGO-EKINTZA TXUKUNETARA-KO

(2) Gauza jakiña da, XIX mendea arte Salamanka’koa izan zala Españi’ko unibertsitatetik ospetsuena.

---



---

# SALMOAK

---



---

## 57N. : JAUNA SARTZEN DA JERUSALENERA

Ama Birjiñak esana zion,  
Judas bakarrik artuta,  
kariñoz eta negar egiñaz:  
“Zaude peligrone sartuta.  
Maixuan kontra baldin bazaude  
jarri zaite mudatuta”.  
Dana alperrik izan zan eta  
jarri zan ofendituta.

Afaldu zuen arrats ura zan  
larunbat egunekoa,  
misterioak orituzteko,  
Erramu jai aurrekoa.  
Birjiñak eman zion Judasi  
gauz balio aundikoa:  
Madalenak beretzat emana;  
au zan lotsagabekoa.

Ama Birjiñak eman zizkion  
gauz onak artu zituan,  
eskatu zion Maixuan kontra  
asmo txarrak bazituan,  
“nere kontrara jarri itzazu  
bera Jauna da munduan”.  
Entzuan ezer atera eta  
laga zioten orduan.

Eldu zanean Erramu-jai  
izeneko igandea,  
Jauna erten zan ikasleekin  
baita aingeru-taldea,  
Jerusalena juateko eta  
Betfaje-n zan esatea,  
eskatu eta ekarri zizken  
asto ama ta umea.

Apostuluak beren kapakin  
astoan apaindutean,  
Jauna jarri zan triunfatzeko  
aste gaztean gaiñean.  
Ikasle aundi ta txikik  
esaten zien bidean:  
“Auxe da gure salbatzaillea  
Mesias gure artean”.

Gure Jaun Kristo pasatuzten zan  
lur apainduan gaiñean,  
egun aietan Jesus iltzeko  
billatzen zebiltzanean.  
Apaizak eta fariseotarrak  
iltzea nai zuenean,

Jaunak biotzak argitu zitun  
aitortzeko indarrean.  
Aitarene onuran bere etxea  
Jesusek zaitu nai zuan,  
saltzen, erosten zebiltzatenak  
kanpora bota zituan.  
Jaunak poztuak izan ziranak  
mudatu ziran orduan,  
beren etxean ospedatzea  
iñork nai izan etzuan.

Jarraitu zuan Jaunak Eleizan  
erakutsitzen orduan:  
nola bear zan errespetua  
Aitarene etxe santuan.  
Berak au gatik basoka bat ur  
artu nai izan etzuan,  
gero jua ziran Betaniara,  
bere Ama an zeguan.

## 58N.: JAUNA IZAN ZAN SALDUA

Apaiz kaifasek bildu zituan  
eskribak fariseoekin,  
berritu zuen nola Lasaro  
piztu dun esanarekin:  
“Erri osoa ondoren dauka  
milagrok sortzearekin;  
erria salbatu bear degu  
gizon bat iltzearekin”.

Judas jauna zan beren artera,  
zeukan grazia galduta;  
galdetu zien: “Zenbat da paga  
Maixua entregatuta?”.  
Eskeiñi zizken ogei ta amar  
zillar diruak artuta.  
Galdetu zien: “Nora zuazte?”  
nai zuan eman salduta.

Salbatzailleak Judasen lanak  
ondo ikusten zituan.  
Birjiñak ere aingeruakin  
dana jakinez zijuan.  
Egun berean: “Nunda Pazkoa?”  
Judasek galdetu zuan.  
Ama Birjiñak erantzun zion:  
“Jaunak dauka sekretuan”.

Atera zedin pekatutikan  
esana zion onela,  
etzan geiago jua galdetzeara  
nerbioso zebillela.  
Jesus ta Amak azkena arte

maitez tratatu ziela,  
Birjiñak negar egiten zuan  
aingeruak an zeudela.

Eldu zanean ostegun-goiza  
Jaunak deiturik Amari,  
lurrean auspez jarririk zion:  
“Emen zure serbitzari”.  
Jaunak lurretik jasorik Ama  
esana zion berari:  
“Ama, eldu da nere ordua  
salbatzeko gizonari”.

Nere Aitaren agindua dela  
gizonak zerurartzeko,  
eman eidazu zure baimena  
gizonagatik iltzeko.  
Birjin izanaz zuk emanda  
gorputza det supritzeko,  
Aitak nai duta ardi galdua  
etxera biurtzeko.

Gero eskatu Amak Jesusi  
baimena itz egiteko,  
Jaunak baimena emana zion  
nai zuana esateko.  
“Nere maitea, ni ez naiz iñor,  
Jauna, zuri esateko:  
zure gorputza eta odola  
kontsatzean artzeko”.

Jaunak agindu Ama Birjiñaren  
aingeruari orduan:  
“Agerturikan lagundu beti  
Erregiñari munduan,  
bere miñetan alaiturikan,  
nola bakarrik daguan”.  
Aingeruak au betetzen zuen  
beti zeuzkala onduan.

## 59N.: JAUNAREN AZKEN OPARIA

Apostoluak galdetu zizken  
Jaunari dudak bidean,  
Jaunak erantzun zien danari  
maitasun aundienean.  
Galdetu zin: “Pazko opari  
nun gaude jan bearrean?”.  
Pedro ta Joan biraldu zitun:  
“Jarri onetxen etxean”.

Nagusi ari eskatu zien  
Maixua ametitzeko  
bere etxean, Pazko-opari  
jai ori zelebratzeko.  
Jaunak grazia biraldu zion  
gizon ari argitzeko,  
eskeiñi zien lekua eta  
bear zana apaltzeko.

Jaunak Amari lekua esan  
ara erretiratzeko,  
ta emakume an zeuzkanari  
argitutzen saiatzeko.  
Birjiñak egin zuan esana,  
baita otaitz egiteko:  
Birjiñak gogoz espero zuan  
Santisimoa artzeko.

Jesus jeiki zan apostoluak  
aïñ ondo informatuta,  
eta lenengo Aitari otoitz  
egin zion auspertuta,  
esanaz: “Aita, zure antza naiz,  
gogoz naukazu batuta;  
gizonak gatik iltzera nua  
luerreraïño umilduta.

Apostoluai erakusteko  
nai det anak garbitzea,  
etsaiak zure seme naizela  
ez det nai ezagutzea.  
Judasen aurrean ere nai det  
maitez ausper tratatzea;  
berak nai badu, barkatutzeko  
nai det besok zabaltzea”.

Jesus jeiki zan arpegi argiz  
otoitz egin zuanean,  
agindu zien ikasleari  
eseritzeko saillean.  
Kapa kenduta zapi luze bat  
loturik bere soinean,  
ura artuta anak garbitzen  
asi zan danen mendean.

Jesukristoren dotrina Pedrok  
etzuala entenditzen,  
esana zion: “Jauna ez dizut  
utziko anak garbitzen”.  
Erantzun zion serio samar:  
“Ez badidazu utzitzen,  
ez dezu parterikan izango  
nerekin lagun bizitzen”.

Jauna pasa zen Judasengana  
auspez anak garbitzera,  
eta besteai baiño geiago  
graziak ixuritzera,  
kariñoz eta maitetasunez  
alegiñak egitera.  
Etzan bigundu, etzan mugitu  
Jaunari begiratzera.

**Aldalur'tar Justiñe  
(Klaratarra)  
Gasteiz**

---

# LEGE ZARRA (35): ERRI-JOKOAK ETA PEKATUAK

---

## **I LEGEA: JOKOAI BURUZ, ILLE BI IGARO EZKERO EZ BILLAKETARIK**

Baita esan eben: Jokoai jagokiezan zigorretan errege-aginduak diñoana bete bear da.

## **II LEGEA: ONERI BURUZ ERREGE-ESKUTITZA**

Don Fernando'k eta Doña Isabel'ek, zuri konderriko korrexidoreari... osasuna ta grazia... Diru jakiña jokatze-ari buruz erriak kalte aundiak izango leukezelako, eta ori eskatu dozunez, eskutitz au dozu gure erantzuna: Ille bi igaro ezkerok ez daitela jokoai buruz billaketarik egin eta orretarako baimenik emon be ez, dirutegirako amar milla maraiko zigorpean eta amabost egun barruan geure aurre-eta etorri zaitezela, gure agindua zelan beteten dan jakin dagigun, Balladolid'en emona, milla bosteun eta batgarren urtean, otsaillaren emeretzigarren egunean.

## **III LEGEA: EDATETXEAN IZAN EZIK ERRIAL BITARAIÑO JOKATU DAITEKELA.**

Baita esan eben: dirua jokatzen danean, gitxi izan arren, jokalaria erreñu onetako legeak austen dabez eta epaikarriak olakoak salatu ebin bear dauz eta kalteak alboratzeko auxe agintzen dabe: jokatu arren be erreal bitik bere ba'da ez salatu ez zigortu olakoa jokoa erdatetxean izan ezik.

## **IV LEGEA: ERRIKOA PEKATUAK ETA SASI- EMAZTEAZ SALAKUNTZAK.**

Baita esan eben: Bizkaitar batzuk erriko pekatuak salatzen dabez esaterako jokoak eta eleiz-gizonean eta ezkonduen sasi-emazteak eta lekuko erriak ekarten dabez, eta kalteak alboratzeko auxe agintzen dabe: Ez prestameruak eta ez merinuak ezin daikela olako erri-pekaturik saltu ta auziperatu, zeaztu baiño; eta korrexidoreak salakuntza artzen dauanean, salatzaillearen erriko eskribauari bialdu dagiola eta erri aretako zintzoak ekarri daizala lekuko eta orrean esanetatik sasi-emazteak auzia egin dagiala eta sasi-emaztea ba'da ez daitela zigortu.

## **V LEGEA: MEZA BARRIETARA ETA EZTEGUE- TARA NORTZUK JOAN.**

Baita esan eben: Bizkaia'n meza barrietara, ezteguetara, bateoetara, gaubeletara eta illetetara dei egiten

dalako, geitu ta geitu egiten dala etorrien kopurua eta orrlakoak kentzeko auxe agindu eben: oraindik aurrera ezin daike bizkaitarrik deitu meza barrira edo epistolata-ra zein ebanjeliotara parrokitik kanpokoan danean joan eta parrokitik kanpora ezin daiteke joan deituta naiz deitu bagerik ez ezteguna, ez bateora, senidea izan ezik eta joan ezkerok amar milla maraiko zigorra izango dabe eta parrokitik kanpora ez daitela iñor joan gaubeletara eta illetetara aideak izan ezik eta aide nagusiak euren senideen illetetara joan daitezela morroiakaz eta beste sei lagunegaz.

## **VI LEGEA: ILLETAK ZELAN EGIN.**

Baita esan eben: Bizkaian negar aundiak eta itxusikeriak egiten dirala norbait ilten danean eta au kaltegarri dala, eta orrelako, okerrako alboratzeko, bat ilten danean ez daitela iñor ausartu negar egiten edo uleak erauzten edo arpegia urratzen edo burutsik agertu naiz kantaka negar egiten, egiten dauanari milla maraiko zigorra ezarten jakola. Onartzen da era onez negar egitea, baiña gurutzea ta eleiz-gizonak erresponstsuak egiteko datozenean olango negarrak amaitu daitezela, eta eleizan lurperatu ezkerok, ez dagiala geiago iñok negarrik egin, otoitz egin eta eskupekoa emon baiño, eleizkizunetan negar egitea ez dalako itxurazkoa eta ez Jaungoikoarentzat goragarri be eta eleizkizunak galazo egiten diralako.

## **VII LEGEA: SEIÑA EGINBARRI DANA IKUSTE- RA NOR ETA ZELAN JOAN.**

Baita esan eben: Bizkaia'n emakumeak seiña eginbarri dagozenak ikustera joaten dirala eurakaz doaz betarik neskatillak doazela, eta au agindu eben: Neskatillak ez daitezela umea izanbarri dan ama ikustera eta emaitzak eroatera joan eta ori egiten dan bakoitzean seireun marairen zigorra izan dagiela.

## **VIII LEGEA: ERROTETAKO PISUAK ETA ZORROAK.**

Baita esan eben: Errotara eroaten dan garagar-zorroa pisatuteko errotan aztagailluak izan bear dabela baiña ez erroa-pisagaillua eta artzerakoan eta emoterakoan zorroak pisatu dagiezela eta errotariak pisa-gaillurik ez ba'dauko, seireun marairen zigorra izan dagiala.



**IX LEGEA: ERROTARIEN SARIA**

Baita: errotariak eiotearen ordez oztu egiten dabela eta sari ezbarđiñak kendu, orretan auxe agintzen dabe: errotari bakoitxak anega gari edo arto eiotearren bost libra eroan dagizala, ez geiagorik eta besterik egiten dauan errotariari, bakoitxeko seireun maraiko zigorra ezarriko jako.

**X LEGEA: ZERGAZAIÑAK BIDEAK IKUSI ETA SALATU DAGIEZALA**

Baita esan eben: erregebideak obeto zaindu bear dirala guztientzat on aundia dakarrelako, eta auxe agintzen dabe. Zergazaiñak urtero ikusi dagizala bideak maiatzaren barruan eta konpondu-bearra dagoanean zenbat eralgi bear dan esan dagiala, eta jakingarriak errexidoreari emon, urrengo bagillaren amabosterako jakiñak izan dai-tezan eta ori egiten ez dauan zergazaiñak seireun maraiko zigorra izango dau, erdia salatariarentzat eta beste erdia bideak konpontzeko.

**XI LEGEA: UR GAZADUN ERREKETARA EZ ONDAKIÑIK, EZ INTXAUR-AZALIK**

Baita esan eben: Bizkaia'n erreketara onda-sareak,

botaten dira eta arraiñak ondatu baita karea eta intxaur-azalak be. Eta kalteak alboratzeko auxe agintzen dabe: Errekara onda-sarea edo karea edo intxaur-azalak botaten dauanak, orrelan arraiña il eta arrapatzeko, seireun maraiko zigorra izan dagiala, erdia salatariarentzat eta erdia bidegintzarako, itxasoko ostera, bota daitekez.

**XII LEGEA: ZITAL ITUNBENIK EZ EGIN**

Baita esan eben: Ez banakakoak eta ez udalak, ez uni-bertsitateak ez dagiala monipodio edo itun zitalik egin, erreinuko legeak diñoanez.

**XIII LEGEA: TABERNARIAK ETA JOSTAILLUAK**

Baita esan eben: Bizkaia'n tabernetan joko-aldiak egiten dirala eta ortik sortzen dirala eriotzak, zauriak eta biraoak eta etxaldea galtzea, orregaitik agintzen, ez joko-bolarik eta dirurik edo ardaurik jokatzeko ez dagiala onartu eta erritarrik edo eleiztarrik ez dagiala gabaz etxean artu, bi milla marairen zigorpean, iruterik bat txiroentzat, beste bat bidegintzarako eta irugarrena salatariarentzat.

---

---

## **LEGE ZARRA 36: JAUN AUNDIARI EUN MILLA MARAIEN ZORRA.**

---

---

**I LEGEA: EUN MILLA MAIRAIEN ZORRA DAUKEN ETXEAK EREGLI.**

Baita esan eben: Ba-dagoz Bizkaia'n etxeak jaun aundiari eun milla maraiko zentsoa zor dautsoenak eta olako etxea bertanbera izten dabe ez ordaintzeko eta orrelan jaun aundiari errentea kentzen jako, orregaitik agindu eben olako zorra daben etxeak zutik iraun dagiela eta olako etxea izten dauanari prestameruak etxea barrero jaso eragingo dautso eta bertan bizi eragin.

**II LEGEA: ZENTSOPEKO ETXEAK EZIN DAITEKEZ SALDU.**

Baita esan eben: Jaun aundiaren zentsopeko dan etxerik edo baserririk ezin daitekela saldu edo truke egin, ez zatirik eta ez solorik, eta urtero zentsoaren zorra ordaindu dagiala.

**III LEGEA: EPAIKARIAK FORU ONETAKO LEGEAK GORDE DAGIEZELA**

Baita esan eben: Bizkaitarrak euren eskuko eta zergabako dirala lege berezi oneik aurretiko jaunakandik daukezelako, askeak dirala.

**IV LEGEA: BETE-ERAGILLEAREN SARIA, KORREXIDOREAK EZARRI**

Baita esan eben: lan-sari araudian sari txikiak ezarten diralako, konderrri onetako bete-eragilleak ez dabela euren lana bizitasunez egiten, orregaitik agintzen dabe bete-eragilleak izan bear dauan saria korrexidoreak ikusi dagiala.

**OLAZAR'tar MARTIN'ek**

---



---

# ABIZENAK

---



---

**Aldabalde:** Aldaba da oiñarria eta onek mendiaren aldartzaren barrenean esan gura dau. Orren ondoan dagoana litza-ke aldabalde.

Gipuzkoan zabal dabil eta 1637n. urtean Urretxu´n agertu zan, baiña askoz lenago 1212 Tolosa´ko Nabeta´n izandako gudaldian agertzen da.

\*\*\*

**Aldasoro:** Soraluze´n eta inguruetan agertu zan eta aldapan dagoan soloa esan gura dau.

1475n.urtean abizen au eukan Segura´ko alkateak.

\*\*\*

**Aldai:** Zabal dabil Euskalerra osoan eta Alda mendi aldapa izanik, -i ez da besterik toki-atzizkia baiño. Fruniz´en antxiñako torrea egoan muñoaren alboan dago Aldai etxea eta ortik datorrela diño Torrealdei abizena.

Eibar´en agertzen da 1613n. urtean.

\*\*\*

**Aldazabal:** aldapa zabala. Azkoitian 1415n. urtean.

\*\*\*

**Aldekoetxea:** Urrean edo alboan dagon etxea esan gura dau. Gipuzkoan zabal dabil.

\*\*\*

**Altonaga:** Amurrio´n agertu zan eta altun erderazko yezgo deritxon bedar-landarea da eta-aga tokia adierazten dauan zeintzaillea.

\*\*\*

**Alzuaga:** Zeanuri´n dago auzo bat eta toki arritsua da. Ori esan gura ei dau berbeak: "Arritsuaga". Azpeitia´n agertzen da 1580n. urtean.

\*\*\*

**Amallo(a):** Markiña´n agertzen da. Maillo bedar-lekua da eta au bardin.

Balladolidén 1775n. urtean.

\*\*\*

**Amantegi:** Meñaka´n sortua ei da baiña erri onetan galdu da. Ubidea´n dagoz.

Ama-bedar-lekua dan ezkerro, -tegi´k ugaritasuna dierazten dau.

**Amaia:** Naparroa´n, 1454n. urtean. Mendi bat dago Burgos-Palencia´n. An amaitzen da Euskalerra.

"Ama" bedar-lekua da baiña azkena adieratzteko be erabilten da.

Sarritan agertzen da Valladolid´en.

**Amesti (Amestoi):** Ziortza´n eta Gernika-aldean dago. Ametza aritz-antzeko zugatza da eta -ti edo -tui Atzizkia (masti=marazdui) ugaritasunaren atzikia da. 1566n. urtean Donostian agertzen da.

\*\*\*

**Amezola:** Ametza aritz-antzekoa dala, -ola´k atzikia danean ugaritasuna adierazten dau (Urki-ola).

\*\*\*

**Amorebieta:** Amore-bedar-lekua da, eta atzizkia -bideta izan daiteke. Barrutietarako bidea. Beste batzuk "karraskal" amo- eta -ibieta dala diño. Lenengoa da argiagoa. "Amuritzza" be ortik letorke.

\*\*\*

**Amorrortu:** Bedar-lekua dan ortua izan daiteke. Balladolid 1685.

\*\*\*

**Amundarain:** Ataun´en dago etxea eta Zegama´n agertu zan 1626n. urtean.

Ama-bedar-lekua da eta -da toki- atzizkia, ain´ek gaiñean esan gura dau. Bedarlekuaren gaiñean dagoana.

\*\*\*

**Anaia:** Ba-dago erdel-errian be eta ez dakigu emendik joana dan. Alemania´tik etorria dala be badiño. Bedar-lekua esan gura dau.

1537´an Jerusalem´go Juan Deunaren taldean agertzen da.

\*\*\*

**Antxia:** Ibarra´n dago etxea, baiña Aragoian be badago. 1699n. urtean Santiago´ko zaldun batek dauko.

\*\*\*

**Andia:** Bedar-lekua izan leiteke. Tolosa´n dago etxea. Yezgo deritxon bedarra dagon lekua esan nai dau.

Tolosar baten eukan abizen au 1346n. urtean.

\*\*\*

**Andikona:** Iru etxe Berriz´en. Andi- bedar-lekua da eta -ona toki-atzizkia.

\*\*\*

**Andraka:** Lemoiz´en dago auzo bat eta izen ori dauken iru etxe.

Andi- bedar-lekua da eta -ka zer esan nai dauan ez daki-gun atzizki ugaria. Bilbao´n 1615n. urtean

---



---

# ANDRA MARI DANTZA-TALDEA (1)

---



---

## SORRERA

Andra Mari dantza taldearen sortuera 1957garren urteko ude goienean lortu zan. Iñaki Ibarra, abade izango zanaren eskaritik, dantza talde bat lortu al izateko, beren lenengo abade meza izango zan 1958garren urteko uztailaren 21erako; baña izan-aal ori ez eban lortu, nai ta gero, dantza taldeak gaurrartño aurrera jarraituarren.

\*\*\*

## ERAGOZPENAK

Jose Luis Egiarte txistulariaren serbitzio militarra 1956eko Martxotik 1957garreneko Uztailararte izan zan. Mariano Barrenetxea txistularia ostera, baita taldeko lenengo espatadantzari izango ziran Azkueta eta Gainza jaunok ere, serbitzio militarra Basauri erriko Ariz parajea zegoen kuartel militarrean egin genduan. Arratsaldetan libre eukiarren lo egitera ere etxera etorten gintzezan.

Dantzak ikasteko be asti apur bat bageneukan. Naiz ta orduan dantza taldeak ez eban izenik izan eta banderarik ez eban euki, Andra Mari izen ori, dantza taldearentzat, Mariano txistulariaren amak 1960garren urtean asmatu eta orrela izen ori taldeari jarri zien. Egiartek baita Barrenetxeak, bi txistulariok, markatzen dabe dantza-taldearen sortuera.

\*\*\*

## MAIXUAK

Lenengotarik, dantza maixu, Begoñako Karmelo eleizako Gaztedi dantza taldearen espatadantzari, Bilbotar Juan Orozko "Txinbera" izan zan. Joan-etorria egiteko, taldeak autobusa ordaindu eta dantza saioaren ostean dantza taldeko mutillekin botilla bat arda ere edan egiten zan.

Dantza taldearen sortueratik dantzarako neskak naiko ugari agertu ziran; baña mutillen artean zortzi-garrena egiteko bat falta, eta Mariano txistularia dantzari izatera prestatu zan.

Dantza taldearen lendakari Amantxi jauna, eta idazkari edo sekretario Sabino Larrea jauna izan

ziran. Lenik, dantzariak iru lau saio Dr. Gandasegui eskolako arkupe eta gela baten, baita ere Santa Maria elizako arkupetan, eginarren, gero dantza saioak sakristiako gela baten egiten ziran, naita geroago eleiza eta abade etxearen artean zementoa bota ta dantzak egiten bertan jarraitu ginduan.

\*\*\*

## ELEIZEA

D. Juan Aguirre, parroko jauna, Bilboko klinika baten il zan 25-5-1966garren urtean, Sabino Larrea-aren aurrean eta Mariano txistularia eskuetatik oratuta euki ebala. Iltza orretaz, taldearentzat Santa Maria elizako saioak, denporaldi baterako amaitu ziren; eta neska-mutillek, Zugutzu auzuneko Santa Barbara eleizaren arkupetan D. Ignazio Aldakeoa Zugutzuko abade jaunaren baimenarekin jarraitu genduan, 1966 ondoren.

Zugutzuko eleizako abade etxean, gerra aurreko espatadantzarien kolore ezbarriñetako ikurriña agertu zan. Geroago Andra Mari dantza taldean, dantzarien bandera bat, txistu eta alboka, erdi inguru marien dala, egin zan. Dantza-taldeko Bego Loroñok bandera ori egin eban, eta gero Mariano txistularien auzoko Bego Alvarez neskeak albokaren irudiko tutu ziloak zuzendu ebazan. Geroago Andra Mari dantza taldean Berriz erriko espatadantzarien bandera bardin-antzeko bat egin eben.

Nai ta jantzi ta dantza tresna ta abar Santa Maria elizako sakristian beti egon diran ta andik erabilli; dantza-saioak Zugutzutik Pontzi Zabala, osagille jaunaren auto-tegietan egitera pasa giñien, naita neska ta mutil batzuk, aldikada baten Zugutzun geratu, eta orrela Andra Mari dantzariz geitu edo ugaritu egin ziran.

\*\*\*

## DANTZA EGINKIZUNAK

Andra Mari dantza taldeak izen gabe egin zituan lenengo iru dantzaldiak. Erriko auzo oneitan egin zituan: Lenengo ta bein Usansolon, 1958ko San Andres egunean, Azaroaren 30ean; bigarren dantzal-

dia kurutzeko plazan 1958garren Abenduaren 8an, Birjiña Sortze Garbiaren egunetan; eta irugarren dantzaldia, Erletxetan (Gumuzio auzoa) 1959garren urteko ekainaren San Bernabe egunean, baiña errepetiziñoko igandean, 21ean.

\*\*\*

## ALBOKEA

1956garren urtean, Luis Barañano jaunak, Igorre errian, bere etxeko kamaran zegoen alboka neiko zar bat niretzako emon eustan. Alboka orregaz baliatu nintzan jotan ikasteko eta alboka barriak egiteko ere bai. 1960garren urtean albokea eta beren inguruko gauzak bilatzen eta biltzen asi nintzan. Urten orretan, albokea Andra Mari dantza-taldean ikusiaz, gabonak euskeraz zoriontzeko tarjeta bat ere egin zan, alboka baten irudia bertan dala.

Urte berean, taldeko Patxi Barandiaran espatadantzaria eta neska gazte Maria Jesus Garabieta, Domitila Bernaola, Mariangeles Lara eta Begoña Asua, Bekea auzora joan ziren Erromalda Zuloaga pandero-jotzaleagana eta Antonio Ayesta albokariaren etxera ere bai, albokearen eta pandero ta kantuen soñu otsetan jantzan egiten ikasteko.

Belen Ojanguren, Erromaldaren alaba gaztea be jantzan egiteko talde orretara batu zan.

Andra Mari dantza taldeko albokaren jantzalariak San Esteban egunean Abenduaren 26an Cine Regio deritxon Galdakaoko tokian dantzan egin eben, taldeak lenengo jaialdia ospatu ebanean, Antonio eta Erromaldaren, alboka soñu eta pandero ta kantuen soñu otsetan ere dantzatuaz.

\*\*\*

## ALBOKARI BERRIAK

Urteak joan eta urteak etorri, Andra Mari dantza taldeagaz albokea jo eta erabilli eben albokariak, Antonio Aiesta "Jitano", Silbestre Elezkano "Txilibrin", Jose Mariano Barrenetxea Andra Mari dantza taldeko txistularia, eta bein edo geiagotan Eugenio Etxebarria ere izan ziran.

Albokari buruz, dantza-taldean egin zan gure lenengo folleto edo liburuñoa; eta 1963garren urtean egin genduan, baita agertu ere.

Liburuño bat egiteko asmoa Sabino Larreak eman eban, eta orrela, nire albokea bera, eta albokearen eskala egiteko moduaren irudia eta abar, Juan Jose Eskalza jaunari emon neutson, berak marraztu dagia zan. Alboka bat nola egin, baita jotan eta erabilten

ikasteko eta abar, Zeanuri'ra eroan neban nire lanen zati bat izan zan.

\*\*\*

## ZEANURI'N

Nik Zeanuri errira D. Gabriel Manterola abade jaunari eroan neutsozan nire alboka lanak; berak, nire euskera landu eta makiñen idazteko beren laguntza orrela emon eustan.

Andra Mariko folletoan agertzen direzan bertsoak Aita Martzel Pasionista jaunak egin ebazan; eta nire lanetatik ganetikoak, Sabino Larrea jaunak egin ebazan, Mariano eta Jose Mari Bilbao albokariakaz batera.

1962garren urteko neguan argazkia egin gendun, Jose Luis Egiarte dantza-taldeko txistularia ere legun geunkela.

Folleto edo liburuño orren izena berez be auxe da: "Andra Mari Folklore Vasco. Galdacano. 1963".

Albokeari buruzko egillearen izen gabedun liburuño au, mota ortan bakarra zan.

\*\*\*

## OSPETSUAK

Amantxi jauna dantza taldeko lendakari zala eta Sabino Larrea sekretario jaunak, Andra Mari taldearekin, argazki eta azterketa Jose Maria Martin de Retana jaunagaz Galdakaon opatu eben, eta albista oneik EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO aldizkarian 1963garren ekainaren 13an agertu ziran, liburuño orren egille Mariano Barrenetxea dantza taldeko txistulari eta albokaria, orrela izendatuaz aipatu egiten da.

Barriz bere azterketa eta argazkia bera, Miguel Angel Astiz jaunari emon eutsoen, LA GACETA DEL NORTE-ko aldizkari ortan agertzeko.

Egille izateko zindotasun ori Sabino Larrea jaunari, berari ere biurtu bearko eutsoen, ondo irabazia eban eta.

Gauzak orrela izanaz Andra Mari taldean egin zan liburuño ori, 1976garren urtean ALBOKA Entorno Folklorico idaztelezti izatean, egille Mariano Barrenetxeari egiñaz agertzen da. Nire eun ta berrogei ta amar ALBOKA Ent. Folk. liburua taldeari opatu nion, Andra Mari dantza taldea erritik kanpora goragoko erri eta nazio-arteko jiratan joanaz, banatuteko.

**BARRENETXEA'TAR  
JOSE MARIANO**

---



---

# FILOSOFIA

---



---

Iru zatitan eta iru liburutan agertzen dausku “Palabra” argitaletxeak, oso jakingarria dan filosofiaren edestia. Liburu oneik irakurriz, zerbait idatziko dot gure irakurleentzat onuragarri, pozgarri eta argigarri izango dala-koan. Ez naz sakontasun aundietara sartuko, filosofirik ikasi ez dabenak be ulertu dagien, baiña filosofia ikasi dabenentzat oso atseingarri izango dirala uste dot idazlan oneik.

Lenengo zati edo liburua Goñi eta Zubietar Karlos´ek idatzia da. Jakintun au Bartzelona´ko Ikastetxe Nagusian egin jakun Filosofiaren dotore eta gaur irakasle dogu, baiña ainbat liburu be idatzi dauskuz. Eskuetan dakagun au errez irakurtekoa eta argitsua da.

\*\*\*

Filosofiak edo gizakien pentsakera sakonak edesti lueza dauka, jakituriaren billa dabilzanak egin daben edestia.

Asieran mitoak ziran gizakien ago-miñean ebiltzanak eta mitoen bide ori izan da zabalena sortaldean baiña ori lenengo liburu onen azkenean aztertzen dau idazleak.

Sortaldean, ostera, mitoak itzi eta azterketara sartu zan gizakien pentsabidea eta ortik sortu da filosofia. Mileto´on asi dala esan geinke, Tales lenengoa dala.

Filosofiaren gorengo maillan Platon eta Aristoteles aurkitzen doguz, neure ustez Aristoteles egokiagoa, eta pentsalari sakon orrean ondoren datoz filosofiaren aurre- rapena eta arlo barriak.

\*\*\*

Lenengo filosofilariai “Sokrates´en aurrekoa” edo pre-sokratikoak deritxegu eta onein artean lenengoak Mileto´n aurkitzen doguz: Tales, Anaximandro eta Anaximenes eta irurak billatzen dabe munduaren jatorria eta ortik datorrela diñoe izadi osoa.

Mileto´ko Tales K.a.´ko 640n. urtean jaio zan eta Grezia´ko zazpi jakitunen artekoa dogu. Izen aundia artu eban bere sasoiaren izan zan eklipse bat aurretiaz iragarri ebanean. Beretzat gauza guztien jatorria ura da. Anaximandro´rentzat danaren jatorria “apeiron” da, ortik sortu da eta orra biurtuko da dana. Anaximenes´entzat aizea da gauza guztien jatorria.

\*\*\*

Mileto´tarren ostean Pitagoras eta onen eskolakoak etorri ziran K.a. 570n. urtean jaio zan Pitagoras. Bera

izan ei zan “filosofo” edo “jakin-zale” izena lenengo artu ebana. Oneik mundo osoari “kosmos” esaten dautsoe eta kosmos orretan dagon egokitasuna zenbakietatik eta neurrietatik datoz eta ortik sortzen zan izadiaren doiñu ona edo armonia, zeruko musikea.

\*\*\*

Sokrates´en aurreko jakin-zale edo filosofoen artean beste talde bi aitatu bear doguz Elea urian, bata Eraklito´rena eta bestea Parmenides´ena. Biak alkarren aurka dagoz: Eraklito´rentzat ezer ez dago geldi, dana dabil ibil- llian. Parmenides´entzat, ostera ezer ez da mobitzen, dana dago geldi.

Eraklito´k “logos” berbea asmau eban, gizaldiak geroago be sarritan entzungo dan berbea. Kosmos´en barruan dagon “errazoiak” edo buru argia da ori.

Parmenides´en dana geldi egon-bearra baieztatze-ko, ospetsuak dira Elea´ko Zenon´en Aporiak eta urten-ezi- ñak: Akiles ibiltari bizkorak ez dau iñoz atzean itziko aurrean joakon dotokea, lenengo biderik erdia egin bear-ko daualako, gero erdi onen erdia eta orrelan muga barik...

\*\*\*

Urrengo Grezia´ko atomistak datoz, Leuzipo eta Demokrito.

Oneintzat mundua sortzen dabenak kisi txikiak dira, atomoak. Txiki-txikiak eta asko be asko dira, ezin genkez ez ikusi eta ez zomatu, baiña onein bitartean uts-uneak dagoz. Mundua beti izan da atomoen aldakuntzakaz barrizatzen da. Barrizatze au ez dau iñok diberatzen, aduak baiño.

Aldi orretakoa da Anaxagoras, K.a. 500n urtean jaioa. Onentzat danaren gaiñetik mundua zaintzen dauan buru argi bat dago eta buru argi ori izakietara sartzen da, toki guztietan dagozan azi buru-argien bidez.

\*\*\*

Jakitun onein bidez jakinzaletasunak edo filosofiak aurrerapen aundia egin eban Grezia´n, baiña illun-une bat dator orain, sofisten aldia. Oneik jakituria saldu egiten dabe eta orretarako izadiaren azterketa itzi eta berba-lapi-ko biurtu ziran diru-truke, baiña laster agertuko da Grezia´n benetakako jakin-zalea eta filosofoen irakasle izango da, Sokrates.

**OLAZAR´TAR MARTIN´EK**

# MATRICI KOOPERATIBAKO BALTZU ERAGILEERI EGINDAKO ESKABIDEA

## INOREN TABAKOA DALA ETA, KOKOTAGINO, TXO!

Norbera erretzailea ez bada, inoren tabakotik babesteko amaika eskabide egin dot bertan Matrici kooperatiban bearrean asi nintzane-tik, eta badira, daborduko, amabost urte, gero!

Eskabideok idatziz zein agoz egin dodaz, batzuetan apal eta erre-guka, beste batzuetan sututa eta agi-rika.

Ez dot urteotan, baina, erretzai-leetatik besterik jaso, mustur-oker-keria, orkonponkeria, gitxieritxike-ria eta bardin segiduko dodankeria-rik baino, inorenganako begirunerik eza, azken batean.

Ez dago erretzaile bat be gorabeera onetan inoren kontu artuko dauanik.

Eta esandako ori ez dot alan, merke-merke, beste bagarik esan, ez. Ori izan da, izan be, urte guztiotan beti be beti bizi izan dodan zoritxar negargarria.

Dan-danak bardin jokatu ten dabe: entzungor. Beste alde batetik, noz edo noz etxe orretako barruko erakundeakana (Kontseilu Soziala zein Kontseilu Errektorea) josten izan

dot, txitean-pitean. Erakundeok, baina, gormutu dagoz, aurki.

Amabost urte gormutu. Bada gero! Euretatik be ezelango erantzunik inoz ez dot artu. Zeresanik be ez, gure osasuna babesteko neurririk edo olakorik artuteko sasoian. Uts beti uts!

Onezkero, bada, norberaren gal-darak beteta dagozaneko, zer egin bear ete dodan neure buruari itaundu deusot makina bat bider. Baita euro-ri be itaundu. Zer egin bear dot, bada?

Ez jat, antza, beste biderik lotuten konflikto soziala sortzearena baino. Baina orragino eldu bear da gauzak konponbidean iminteko? Ezin leite-ke arazo au, beste era batera, onean konpondu? Beartuta ete nagotzue txarrean gorabeera au konpondu era-giteko? Baiezkoan nago. Borondate onik eza eta itzikeria naia besterik ikusten ez danean.

Ez dot baztertuten bada, Matrici barruan danon (nire neure) osasuna tabakoaren aaleko kaltetik babesteko neurririk ez bada artu gura, babesa Matricitik kanpoko beste foren bat

edo batzuetan topetea, legezko babe-sa bearrezkoa bada be bai. Asko da, egoera onetara eldu bear izatea!

Onegaz lotuta, bide batez, gogo-ratu eragin deutset Matriciko baltzu eragileeri 1988ko martiaren 4ko 192 Errege Dekretuak (1999ko garaga-rrilaren 23ko 1293 Errege Dekretuak osotuta) dakarrena: "Osasunbideko Lege Orokorraren 25.2 artikulua ren arabera, tabakoa pertsonen osasuna-rentzako kaltegarria dala adierazten da.

Eta konfliktorik egotekotan, erre-tzaile ez diranen osasun eskubideak leenengotasuna eukiko dau beti erre-tzaile diranen tabakoa erretoko esku-bidearen aldean, erretzaile ez diranen osasun eskubideak leenengota-suna eukiko dau beti erretzaile diranen tabakoa erretoko eskubidearen aldean, erretzaile ez diranen osasun eskubideak erasota egon leitekezan leku eta egoera guztietan".

Begirunez eta eskatutakoari oraingoan eta beingoz jaramon egin-go jakolakoan, agur beroa opetsi deutset.

**Inaki MARTIARTU**

## EUSKERAZALEAK

Euskal Astea: 2004-11-22'tik 26'ra

- 22.- ASTELENA: Bertsolaritza: Legarreta'tar Asier'ek.
- 23.- MARTITZENA: Euskalerrria Europa'n (I): Atutxa'tar Paul'ek.
- 24.- EGUASTENA: H'ari buruz dana argi ta garbi. Olazar'tar Martin'ek.
- 25.- EGUENA: (izendatzeko)
- 26.- BARIKUA: Euskalerrria Europa'n (II): Atutxa'tar Paul'ek

## PIZTIAK ETA ABEREAK

Irakurle! Margo Ederdun Entzikipedia'ri jarraituz, orain asten dogun irakurgai arlo onetan, leiotxu bat zabaldu nai dautzugu, piztiak geroago ta obeto ezagutu ta maitatu dagiguzan.

Atsegin izaten jaku egaz doan txoriaren izena jakitea, euskerazko izena euki ba'dauko, edo gabontza ta mozoilloa bereizten jakitea, edo basa-erlea ezagutzea edo sasian dagoan txori-abia aurkitzea.

Geroago ta aundiagoa da gure mundu onetan piztiak eta abereak ezagutu-bearra, kaleetan bizi garalako eta sarritan gure gaztetxuak ez dabe jakiten esnea edo arrautzea nondik datorren.

Egunen batean iparraldeko "taiga" deritxon baso-baltzera joateko aukerea izango dozu, edo elefanteak bizi diran Afrika'ra, edo Ameriketako oian aundieta-ara... Ango pizti ta abereen bizi-iztia, zoolojia, apur bat ezagutzea ondo etorriko jatzu.

\*\*\*

Landarak naiz piztiak naiz gizakiak batera daukagu gauza arrigarri bat ioñarrian: bizia.

Iñok ez daki nondik eta zelan sortu dan bizia. Iñok ez dau sekula euki izaki bizi bat egiteko almenik, ez eta azia egitekorik be. Orain milloika urteak dirala itxas-basterren baten agertu zan miraria da bizia. Zelan ez sinistu munduaren aurrerapide txologarri orretan Jainko Egillearen eskua agiri dala?

Iñori ez jotorko burura arrain bateri uleak ipintea edo txoriari ezkatat jartzea edo bildotsaren gorputza lumaz jaztea. Ba-dakigu pizti bakoitxa zelan jazten dauan izadiak.

Dana dala, gitxi da pizti eta abereai buruz dakiguna.

Miloi bat geiago ei dira pizti-motak eta asko euren sailletan ipiñita dagoz. Gaiñera azur arri biurtuetan (fosiletan) piztien edestia agertzen da. Kizkin edo zelula bakarrekoak asko, izate argalekoak, azur bagekoak ziran, gero arraiñak agertu ziran, gero narraztiak, geroago ugatz edo errodunak. Eta azkenean, orain milloi-pare bat urte-edo, gizokia.

Mundu onetako piztirik txikienak ezin doguz ikusi gure begiakaz. Len-biziak edo protozooak dira oneik eta edonon aurkitzen dira: lupatzen naiz ur-geldian naiz ibaietan eta orreixek dira abererik aundiena dogun balearen janari.

Piztien artean ez dago alkarren antz aundirik, esate-rako balea, sagua, jirafa samaluzea, ez dira antzekoak baiña ugatz edo errapedunak dira guztiak, arrautzarik egiten ez dabenak, amak ume biziak erditzen ditu eta gero esnez janaritu.

Len aundiagoak ziran errape edo ugatzdunak, gaur txikiago birtu jakuz eta gaur bertan be pizti bardiñak, non dan, ez dauke aundiera bardiña: Mastodonteak elefantea itzi dausku.

Irlanda'n egoan antziñako oreiñak 1,80 m'ko aundierea eukan eta 3,50 m. zabalerako adarrak. Baiña il zan.

Ugatz edo errapedun piztiok sailkatzeko, izadi-zale jakintsuak piztien oiñai, ibilkereari, uleari, adarrai eta agiñai so-egiten dautse: Artzak ioña oso-osoan ipinten dau lurrian, katua, ostera beatzen gaiñean ibiltan da, zaldiak oinburua ipinten dau lurrian. Orrelan ba, artza oin-azpikaria da, katua beatzkaria, zaldia atzazalkaria...

Ugatzun guztiak narru lodikoak dira, ule bigunez edo gogorrez sendotua. Toki otzetan ule geiago eukiten dabe.

Narruaren margoa be aldatu egiten da bizilekuaren edo kuntzearen edo adiñaren erara.

Jakintsuak ugatzunen agiñai be begiratzen dautse taldeak egiteko.

Txori musturduna Australia'tik Anglanderrira bialdu ebenean, jakin nai izan zan mustur ori ezarria ez ete zan. Ez, izate bizia zan, arrautzak egiten ebazana, baiña bere umeai bularra emon be egiten eutsen. Aatearen musturra, satorraren ulea, igeridunen oiñak, baiña atzeko anketatik pozoia botatzen dau. Ori da zulo-bakarduna, uretan naiz leorrian bizi leitekena, zuloetan abia egiten dauana, eta umeai arrak eta mozorroak jateko emoten dautsezena.

Mustur mee eta luzedun zaldizkia gabaz ibiltan da, iñurriak jakoz atsegin eta kirikolatzaaren antza dauko, onen antzera biribilkatu be egiten dala. Au be arrautzaduna izan arren, umeai bularra emoten dautse.

Abere bi oneik motzak dira baiña gizonarengana eltzen dan kate orretan eraztun edo mailla bat dira.

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'tik  
OLAZAR'tar Martin'ek moldatua**

## ABERATS BATEN AUZI-OSOAK

### LAN BERRI BILLA

- Baserria utzita, kapitalera etorri naiz lan ondradu baten billa.
- Lan ondradu baten billa...?
- Bai, lan ondradu baten billa.
- Egon lasai, mutiko emen ez dok konpetentzi aundirik izango-ta...

### ZAPATARIK EZ...

“Espartiñak urratuta  
zapatarik ez,  
Bermio’n gelditu nintzan  
Oñeko miñez...”

Ez zan ori Oto’ri gertatu zitzaiona Bilbo’ko kaleetan, baña gertakizuna zapatatik zer ikusia ba zuan. Joxepa eta biok joan ziran Exposizio Industrialala ikustera. Ikasi ere anekin ikasten omen da... Joan ziran, beintzat, zorioneko Exposiziora.

Ikusi eta gustau.  
Gosetu ere bai.

Gosetu ezkerro, jakiña da, jateko toki patxadazkoa billatu bear. Kale zaarretan aukeratu zuten eurentzako moduko taberna bat.

Bapo bazkaldu ondoren, erriari bueltatxo bat egitea erabaki eben. Erria luze eta eurok motel bazkari onaren eruz, uste gabe etorri zan apari-legea egiteko ordua.

Egin ere bai, zer arraio gero...

Bein Bilbo’ra etorri ezkerro, zer egingo eben, ba...?

Ondo asitako gauzak, ondo bukatu bear dira. Eta eurok, beintzat, eguna ondo asko asita eukien. Sekula alako egunik...!

Apari-legea beteta, gauzak konpleto egongo ba’dira, pentsatu eben, ondo litzakela gaueko gau-txori oietako toki batera joatea. Or doaz biak ponpoxo asko de brazete Txori-Malo zeritan zorioneko kafeteri edo dantza-lekura.

Ate buruan, argiak kiñuka.

Ate-aurrean, berriz, etiketa beltzez jantzitako gizasemea, pajarita ta guzti... Zalantzan zegoen Oto berekiko pentsatzen ura Funeraria ba ote zan; dana zan beltz gizaseme artean: illeak, bibotea, azala, pajarita, txamarra, prakak eta zapatak; dana, beltz...

- Zer nai?

- Barrura sartu Joxepa eta biok.
- Ezin dezute barrura sartun.
- Zergatik ez? Oraindik paltrikeran ogei durorik ez zaigu falta...!
- Ez, ez... Ezin dezute.
- Pagatzeko dirua badegu, ala basarritarren diruak ez al du kaletarrenak aña, balio?! Ala, zer?
- Ezin deikezute sartun alpargetakin etorri zeratelako.
- Oño, oño... Or barru orretan ainbeste lokatz al dago, ba...!

### SALOMON TXIKI

Botazioak izan ziran errian.

Zein aukeratuko eta gure Oto, gizon ona, aukeratu zuten auziak erabakitzeke: juezetarako, alegia. Bere juez ofizioa estrenatzeko eukan. Ez zan auzirik eta auzitegia beti itxita.

Baña, erririk onenean ere marrajoren bat ez da faltatzen eta egun artan gertatu zan sekulan gertatu ez zana. Jerontxio’k txerri-emea eukan amabi txerritxuekin. Eta egun artan txerrikume bat palta zan kortatik.

Auzokoeekin izan oi dituguz aztabaida geienak eta Jerontxio joan zan auzoko Txokolo’ren ikullura. Atea barrutik itxita morroillo zaar batekin, eta armiarmasarez apaindutako leio txiki batetik burua sartun arren, ez eban ezer ikusten...

Ikusi ez; baña, entzun bai entzuten eban txerritxu baten kurruxka:

- Or dago nere txerrikumea.

Pentsa bezela, egin.

Joan da Oto’rengana.

- Egun on, jauna. Bart txerrikume bat palta zitzaidan txerritegitik eta auzoko Txokolo’k eraman ebala usten dot.

- Testigurik ba al da?

- Nik ikusi ez, baña, entzun bai.

- Baña, besterik ba al da?

- Ez, jauna.

- Orduan gauza gaitza izango da auzia ondo erabakitzzea.

- Txerrikumea, ordea, nerea da.

- Ori ala bada, baña ori probatzea ez da erreza izango.

- Ba, zer edo zer egin bearko da...

- Utzi ori nere kontu.

Oto’k bazekien, apaizak Dotriñan erakutsita, izan zala Salomon jakintsua eta zer jokabide izan eban auzi



batean: Bi emakume gazte bizi ziran alkarrekin eta bakoitzak zuen aur jaio-berri bat. Biotako batek, lo dagoela umetxoaz azpian artu eta ito egin zuen. Konturatu zanean, bare aur illa besteari ipiñi zion alboan eta berea kendu... Auzia sortu zan biak esaten bait zuten aur bizi ura berea zala. Jo zuten Salomon jakintsuarengana eta onek, auzia erabakitzeko, ezpata bat eskatu eban eta aurra anka batetik elduta, ezpatarekin erdibitzeko itxurak egoin zituen, bakoitzari erdi bat emateko. Batek eraso zion:

- Ez, ez il; berari eman...!
- Besteak, berriz:
- Bai, bai erdibitu eta eman erdi bana bakoitzari.
- Orrela jakin zuen Salomon'ek benetako ama nor zan.

Bigaramonean ots egin dio Oto'k Txokolo'ri:

- Aizu konpañeoa, txerrikume bat arrapatu diozu Jerontxo'ri.
- Ez, jauna; nere dirutik erosita daukot.
- Nun?
- Perian.
- Nungo azokan?
- Ba... Ordizia'koan.
- Ori ikusiko degu...Gaur arratsaldeko seiretan etorri biok auzitegira eta ekarri zorioneko txerrikume ori.

Bekañak erre zitun bitartean pentsaketan, ia nola auzia erabaki... Zer edo zer etorri zitzaion burura... Iku-siko zuten Oto nor zan!

Etorri dira biak auzitegira, juezaren aurrera. An eka-rren Txokolo'k txerrikumea:

- Norena da txerri ori?
- Nerea! (Biak batera)
- Biona ezin izan. Nor dabil eman gezurretan?
- Ori! (Biak batera)
- Txerria biona ba'da, etorri ona alguazilla eta ekarri arakiña bere kutxillo aundienetako bategaz.
- Etorri zan arakiña:
- Orain bertan agertuko da egia eta emen nor dabillen gezurretan. Arakiña, erdibitu txerria eta eman bakoitzari erdi bana...

Arakiñak erdibi zuen txerria eta eman zien bakoitzari erdi bana.

Ez zan iñor protestan asi. Biak pozik: Jerontxio txerri osoa galdu ez zuelako eta Txokolo, erdia beintzat, irabazi ebalako...!

Oto gelditu zan egia jakin barik. Arrezkero Oto'ri gaitz izena ipiñi zioten: Salomon txiki.

**ANES**



**BILBAO**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILE

**IPUIN-SARIKETA  
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. ZER'en argitaratuko dira.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da.
- Sariak bost izango dira:
  - 1.ª 300,50 euro.
  - 2.ª 240,40 euro.
  - 3.ª 180,30 euro.
  - 4.ª 120,20 euro.
  - 5.ª 60,10 euro.
- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.


**EUSKERAZALEAK**

**EUSKERAZALEAK ALKARTEAK BAZKIDE GUZTIAI AUXE IRAGARTEN DAUTSE:**


Zemendiaren 8n. egunean beteten dala urtea gure Lendakari izan zan ZUBIRI ETA SANTXEZ'TAR IÑAKI JAUNA (G.B.) il zala.

Irakurle ta bazkide guztiai eskertuko geuskie bere alde otoitz egitea.

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



MARGOZTUTEN BADOZUZ PUNTU BAT DAUKEN ZATIAK, MARRAZKI BAT AGERTUKO JATZU



LOTU PUNTUAK ETA EGINGO DOZU MARRAZKI BAT!

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

## 2004-2005 IKASTURTEA

### **OGEI TA AMAZAZPIGARRENA BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA**

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 135 E

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK  
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 -  
URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

**Asierea:** URRILLAREN 13'AN

### **37º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 135 E

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 94 423 53 22 - BILBAO

**Comienzo:** 13 DE OCTUBRE